



Bazkide garrantzitsuak

Hasteko, gure enpresan ezinbestekoa izango da beste enpresa batzuekin aliantzak izatea, bien onurarentzat eta gure enpresa modu eraginkor batean eramateko. Hauek izango dira gure aliantzak:

Kortxoari dagokionez, hainbat jatetxe, upategi, sagardotegi, tabernetan... bilatuko ditugu. Material hori funtsezkoa izango da gure produktua aurrera eramateko.

Plastikoari dagokionez, garbiguneetara joango gara eta plastikoa bilduko dugu, botilak, tapoiak eta abar. Horiek tiretarako zein txankletetarako erabiliko ditugu.

Azkenik, posible bada, etorkizunean, gustatuko litzaiguke gure balio etiko berberak dituen enpresaren batekin lankidetzan aritzea, produktu bat sortuz. Horrela, merkatuko segmentu handiago bat ezagutuko digu eta gure bezoroek beraien enpresa ere ezagutuko dute, biak irabaziak lortuz.